

BERRIGARA

105. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, apirilak 30

MUSIKA
PROTAGONISTA
LABEGARAIETAN
ASTEBURU
HONETAN


PAZKUETAKO
TXEKORKETARI
BURUZ
BERRIKETAN
UDALA ETA
ZEZENEN
ALDEKO
BATZORDEA

KIROLAK

GARIKOITZ
LAZKANO
GIPIZKOAKO
DUATLOI
TXAPELDUNA



**Zatoz
gurekin!!**



THE



LOOK

Burberrys
OF LONDON


egizabal



CARTUJANO

Dr. MARTENS autentikoak eta PANAMA JACK

JATETXEA




Labegaraieta (BERGARA)

☎ 76 20 07 - 76 42 57

OSTATUA

ZABALA

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela !!




- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...

Aranerreka, 32 behea. Tfnoa eta Faxa: 76 11 40
BERGARA

Biltoki

BETI ZURE ZERBITZURA!



SUKALDE ETA BAINURAKO
ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE
HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00



PHILIPS
TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN
BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE
EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO
DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,
LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51

BERRIGARA astekaria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde
jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Alzalai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Inarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiflu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

HAUTAGAIK

Bi bergarar politiko ekainaren 6ko Hautes-
kunde Orokorretarako
zerrendatan izango dira.
Eneko Oregi Araba-
ko Eusko Alkartasuna-
ko zerrendaburu izan-
go da Kongresurako. 40
urte ditu, Gasteizen bizi
da eta momentuan EA-
ko Arabako Batzorde
Eragileko buru dugu,
aurretik, Eusko Jaurla-
ritzan, Arabako Hez-
kuntza ordezkari karga
bete zuela.

Jose Luis Elkoro,
berriz, Herri Batasunak
Gipuzkoatik Senatura-
ko aurkeztu duen ize-
nen artean dago. Ber-
garako alkate ohiak 58
urte ditu eta amaitze-
dagoen legislatura ho-



netan senatore izan da.

Azkenik, Victoriano
Gallastegi ez da Sena-
turako aurkeztuko eta
Imanol Bolinagak o-
rain betetzen ari den
senatore postuan jar-
raituko du, Gasteizko
Legebiltzarrak izenda-
tua baita.

Bi bergarar Hauteskunde Orokorretarako zerrendetan

ITURRI ONETIK

"Malcolm X" Bergaran

Spike Lee zine zuzendari iparamerikarraren
"Malcolm X" izenburuko pelikula Estatuan
estreinatu ondoren, Akinyele Umoja eta Sashere
Omora "Malcolm X" elkartearen presidentea eta
idazkari nagusia Bergarako Gaztetxean izango
ditugu maiatzaren 8an. Jarrai taldeak antolatutako
hitzaldian, Akinmeyele Umoja UCLA Unibertsitatean
Historian lizentziatuak beltzen eskubideei buruz
jardungo du.

ESAN DUTE

"Baina zer ote du
kirol xume honek,
kirol izena ere doi-
doi dagokion ariketa
natural honek, hain
jende desberdin eta
burutsuaren
ezinikusia
berenganatzeko? Ez
dakit. Agian berek
lasterketa azkenengo
aldiz egin zutenean -
trena ezin
harrapaturik,
"Korrika" egunean,
haurra hondartzan
galdu zenean...-
sentitu zuten itolarri
berbera sentitzen
dugula lasterkazaleok
ere, pentsatuko dute
eta libratu egin nahi
gaituzte sakrifizio latz
horietatik.
Estimatzekoa".
[Antxintxikazaleen
kontra zenbait
intelektualek
idatzitakoari buruz]

J. M. ELEXPURU
Irakasle eta idazlea
EGIN

"Ez naiz eskaladatik
bizi, eskaladarako
baizik".

JON LAZKANO
Eskalatzailea
EUSKAL TELEBISTA



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedena zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA

elektragarintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

NICHOLSON DEVITO

**HOFFA**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30. eta
22.30.**EL ACEITE DE LA VIDA**Igandea: 17.00, 19.30 eta
22.15.

Astelehena: 19.30.

**UN LUGAR EN EL MUNDO**

Osteguna: 19.30.

Zinea▼▼ **Danny**

DeVito aktore eta zuzendariak **James Riddle Hoffa (Jack Nicholson)**

kamioilarien sindikatuko burua izandakoaren figura berreskuratu du. 1975 urtean desagertua, filme honekin bere istorioa argitu nahi da.

▼▼ **Nick Nolte** eta

Susan Sarandonen bitzita erabat aldatuko da bere semeak gaixotasun larri eta ezezagun bat jasaten duenean. Medikuek inolako itxaropenik ematen ez dioten arren, aurrera egiteko ahaleginak egingo dituzte hirurek.

▼▼ Donostiako azken Zinemaldian Urrezko Kontxa eskuratu zuen filmea datorkigu oraingoan. **Adolfo Aristarainen** filme honetan, Arjentinara itzultzean, exiliatutako talde baten gora-beherak kontatzen zaizkigu.

Erakusketak

▼ **Taun-Taun** kolektiboare erakusketa maiatzaren 9ra arte Kultur Etxean. Astebukaeran 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

Musika

▼ **Udal Musika Banda** kontzertua eskeiniko du larunbatean, maiatzak 1, goizeko 11etako Meza Nagusiaren ondoren Labegorrietan.

Farmaziak▼ **Larunbata 1:**

Mozos.

▼ **Igandea 2:**

Mozos.

▼ **Astelehena 3:**

Camacho.

▼ **Asteartea 4:**

Puy.

▼ **Asteazkena 5:**

Guallar.

▼ **Osteguna 6:**

Estella.

▼ **Ostirala 7:**

Mozos.

Ogia▼ **Igandea 2:** Ogizun.

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Ikuskizunak

▼ **Diapositibak:** JARDUNek antolatuta, Ramon Maria Loitik Akonkaguari buruzko diapositiba emanaldia emango du, asteartean, hilak 4, 19.30etan Kultur Etxean.

▼ **Solo en casa II** filmea igandean, 11.30etan, matinallean Novedadesen.

▼ **Conócete a ti mismo y conocerás el universo** izenburuko hitzaldia emango da maiatzaren 7an Kultur Etxean 20.00etan.

Aukeran

▼▼ **Helduentzako Txontxongiloen II. Nazioarteko Mostra** burutuko da Bergaran asteburuko osoan. Estatuko eta atzerriko etorritako 10 taldek hartuko dute parte eta emanaldiak Zabalotegiko aretoan, San Martin plazan, Pol-Pol tabernan eta UNEDeko artean izango dira. Argazkian, Kultur Etxean ikus daitezken Taun-Taunen panpinetariko batzu.



Kirolak

▼ Eskubaloia:

- *Bergara-Bizkor* (senior gizonak). **Larunbatean** 11.15etan.
- *Bergara-Pulpo* (kadete neskak). **Larunbatean** 12.15etan.

▼ Futbola:

- *Bergara-Koskas* (2. errejionala). **Larunbatean** 17etan Agorrosinen.
- *Bergara-Eibar* (2. mailako kadetea). **Igandean** 11.30etan Ipintzan.
- *Bergara-Eibartarrak* (2. mailako infantilak). **Igandean** 10etan.

▼ Saskibaloia:

- *Ibili Bergara-Saieko Austri* (lehen autonomikako mutilak). **Larunbatean** 6etan Kiroldegian.
- *Bergara-Antenas Dominguez* (2. mailako neskak). **Igandean** 12etan.

▼ Pelota:

- Elosuko Pelota Txapelketa (alebinak eta beteranoak). **Igandean** 11.30etan Elosun.
- Pala Txapelketa Osintxuko pelotalekuan. **Igande goizean**.
- *Bergara-Elgeta*. Deba Arroko Txapelketa. **Asteazkenean** 8etan.

▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Labegarieta-ko Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

- Retegi II.a-Errasti/ Etxaniz-Zezeaga (ETB).
- Urionagunea-Andueza VI.a/Lejardi-Oregi.
- Intxaurrondo-Buenetxea/ Badiola I.a-Alberdi III.a.

Larunbatean arratsaldeko 4'erdietan Bergarako Udal Pelotalekuan.

ETXAGI

Jatetxea


Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Martxoaren 29ko plenoaren ondoren

Martxoaren 29ko plenoan, ELA, LAB, eta CC.OO.ek enplegu eta industrializazioaren aldeko proposamena aurkeztu zuten. Beharbada, honezkero nahiko hitzegin da mozioaren inguruan eta Alkatearen jarreraz sindikatoei buruz. Baina ez legoke soberan, gertakizun konkretuen haria galdu gabe, zer nolako kultura politikotan errotuta dauden aztertzea. Ez dut esan nahi plenoan gure proposamenaren alde azaldu ziren HB eta EAri esker onik zor ez diegunik, nahiz eta, susmatzen dudanez, interes gehiago izan zezaketen PNV-PSOE bikotearen kontra sindikatuen alde baino. Diodana da, Euskal Herrian nabari den politika joerak dituen akatsak orokorrak direla, eta azken finean, aurreiritzi oker baten ondorio direla: hau da, alderdi politikoen jokoa izan behar dela, instituzioen barrenean edo kanpoan, ekintza publiko guztia bete behar duena, Gizarte ekintzaren ardatza partiduengan dagoela eta beste inolako herri antolakuntzari ez dagokiola ordezkartza zilegirik gizarte arazoetan. Horregatik diote Eusko Jaurlaritzan partaide diren PNV eta PSOEK, Ardanza Lehendakariak aurkeztutako Enplegu eta Berrindustrializazio egitasmoa borobila dela, eta sindikatuak ez dutela zer gaiturik (azkenik «Pacto» bat eskeintzeko aurretikoa kontraesanaz). Egia ordea, oso bestelakoa da: ez Gobernuak ez oposizioak egin diote jaramonik arazo honi, sindikatoak, eta batez ere ELA, bazterrek astintzen hasi arte. Alferrik ihardungo du esaten PNVko bozemaleak plenoan, partidua aspaldidanik arduratzen zela arazo hauetaz, begibistan dago eta noren eraginez ekin dioten politikoen ipurdia mugitzeari. Alkate

jaunaren ateraldiaz zer esanik ez; alferrik aipatuko dizkigu reglamenduak eta araua. Herriarroi min ematen dizkiguten gauzez hitzegin behar ez bada, zertaz hitzegin behar da Plenoan? Politikoez ez dutela asmorik sindikatoei aurrerapiderik emateko: beste guztiak aitzakiak dira.

Erizpide hau sendotzeko prentsak emango digu adibiderik. J. M. Calleja-k DIARIO VASCOOn, apirilaren 2an: "... los líderes del PNV no tienen empacho en criticar a ELA por lo que consideran su vocación de partido político. Y ahí está la clave ELA y el PNV se reprochan el disputar el mismo terreno, el de la actividad política." Bezperan, berriz, CORREOn, J.C. Viloriak. "La cúpula del sindicato (ELAgatik) persigue como horizonte a medio plazo impulsar un futuro Gobierno de bloque nacionalista, lo que beneficiaría su papel como sindicato predominante (fuentes del PNV)".

Derrigorrez, uste dute, joku parapolitikoa bat dela bitartean, norbait euren esparruan muturra sartu nahian dabilela. Ez zaie bururatzten sindikatoak gogoz beren gain hartu lezaketarik enplegu eta industri berritzearen arazoa eta neurri batzuk aurkeztea langileen arduen arabera, premia larriak bultzatuta. Hau ulertzeko, noski, premia larriak badirela aitortu beharko lukete.

Hortan datza gakoa. Ez da gaur politikorik, -ezker edo eskubi-, lanik eza, gazteen galzoria edota lan gorabehereri usai ematen dienean musua zimurtuko ez duenik. Ez dago modan gauza hauenganako arreta.

Ez dakigu, norbaitzuk dioten bezala, Estatu Komunisten gainbeherak horrenbesteko zerikusirik izango duen gaurko politikoen langile munduarekiko sensibilitate urriarekin. Baina dudarik gabe, sortaldeko estatuak beti izan dira nolabaiteko eredu (nahiz eta eredu kritikoa) bestaldeko indar ezkeriarrendako, eta langile jendearekiko begiramena mistika ho-

rren itzalpean indartu da, neurri batetan behintzat.

Orain, komunista ohiek pluralismo politikoa nahi omen dute; baina ageri dena zera da: han ez da lortu partidu aniztasunik, hemen, ordea, zeharo ezabatzen ari da. Ekonomia arloan gutxienez, partidu guztiei joera berdina nabari zaie. Prestazio sozialak murriztu eta sektore publikoa desegin, langabezia kontutan hartu gabe. Maastrich dela eta ez dela, urteen buruan partidu, sindikato eta beste herri erakundeen partaidetzarekin lortutako gizarte oreka desegiten ari dira, gure Herrian oraindik lortu ere ez dugun oreka, "estado de bienestar" esan ohi dena. Eta hemen ohar bat ez legoke soberan. Demokraziak zerikusi gehiago du ongi-izatearekin joku politikoaekin baino.

Esan dugu politikoen nekez bat egiten dutela langile sentimenduekin; horrek ez du esan nahi enpresariekin ere problemarik ez dutenik. Euskadin ez dago askok uste duen beste enpresari. Garai batean Euskadi osoa "industrialde" bat zela ematen zuen, baina mugak irekitzean ilusio hau desegin zaigu, eta konpetentziaren galbahea pasa duten enpresak gutxi dira; gutxiago oraindik bokazioa mantentzen duten enpresa gizonak. Ez dago enpresari talde ondo finkaturik interes konkretu batzuen inguruan. ADEGUI edo CONFEBASKEK ez dute proposamen propiorik aurkezteko kemenik CEOE ingurutik ezin dira atera.

Gauzak horrela, politikoez ez dute enpresariekin interes joku bat artikulatzeko modurik; are gutxiago nazio proiektu baten barrenean. Krisia, beraz ez da bakarrik ekonomikoa eta nekez konponduko da partizipazioaren kultura suspertzen ezpada.

X. Larrañaga, ELAko Herri Baturakoa.

Tiira ba!



Josu Okino

Soldaduak jaietan

Bergarako jaietan soldaduzkan dauden mutilek permisua lortu nahi badute Udaletxeko bulegoetan izena, helbidea eta kuarteleko buruaren izena eman dezakete lehen bait lehen.

Diapositiba emanaldia

Pol-Pol Argazki Taldeak Batis Goikoetxea eta Miguel Angel Otsoa de Aldaren "Aitzkorri mendi lerroa neguan" diapositiba emanaldia iragarri du datorren ostiralerako, hilak 7, arratsaldeko 8etan Kultur Etxeko aretoan. Guztira 155 diapositiba ikusi ahal izango dira.

Labegaraietako jaiak ospatuko dira astebukaeran

Labegaraietako Jai Batzordeak antolatuta bertako jaiak ospatuko dira ostiral eta larunbatez. Ostiralean, etxaflero jaurtiketa eta kanpai hostez jaiei haisera emango zaie 20.30etan. Ondoren, gaueko 11etan, Angiolillo, Oztopoka eta Noise Hole taldeek musika jaialdia eskeiniko dute.

Txirrindulari proba

Larunbatean, XXXI. Labegaraietako Txirrindulari Lasterketa jokatu da, 11etan Soka Boskotearekin Meza Nagusia izango da eta ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua.

Ordubatean salda, txorizoa, herri jolasak eta dantzariak egongo dira, 4retan XVII. Mus Txapelketa jokatu da Zabala tabernan (izen-



Angiolillo taldeak ostiralean emango du kontzertua.

ematea ordu erdi lehenago itxiko da), 5etan Kiroldegian, kukañak, buruhaundiak eta hankaluzek iragarrita daude Kukuma taldearekin, 6etan Trialsin proba eta, ondoren, txokolatada guztientzat eta 7etan poteo herrikoia burutuko da. Gauean, 11etan, rock jaialdia S.A, Urtz eta Ehun Kilo taldeekin eta goize-

ko 4retan porrusalda. Amaitzeko, ohizko galtzontzilo eta kulero lasterketa goizeko 5etan.

Aurtengo jaiek milioi erdi pta.ko aurrekontua dute eta antolaketan aritu diren 2 kuadrilek boleto salmenta, iazko irabaziak eta Udalak eta hainbat merkatarik emandako dirulaguntzekin beteko dituzte gastuak.

Elkarriren aurkezpena

Joan den ostegunean Elkarri, pakea eta elkarrizketa bultzatzeko sortu berri den taldearen aurkezpena egin zen UNEDeko aretoan, Euskal Herri osoan zehar egiten ari diren aurkezpenekin jarraituz. Maixus Rekalde eta Jonan Fernandez Elkarriko kideek talde honek dituen asmoen berri eman zien UNEDen bildutako 70 pertsona ingururi eta mugimendu sozial hau edozeinen partaidetza hartzeko prest dagoela adierazi zuten. Interesatuak 652942 telefono zenbakira edota Bergarako Elkarriko taldera jo dezakete.



KIZKUR



Heapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

Urteko egunik euritsuena

Pasa den igandea, hilak 25, aurtengo egunik euritsuena izan genuen Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera. Egunean zehar 101 litro m²-ko jaso ziren eta, azken urteotan, 1983 eta 1988ko uholdeetan bakarrik jaso zen ur gehiago; 1983an 133 litro (aurtengoan bezala 24 ordutan) eta 1988an 138 (orduan gehiena bi ordutan bakarrik).

DYAren egunak

Larunbatean eta igandean, maiatzak 1 eta 2, Deba Garaiko DYAk bere urteroko diru eskaera egingo du, aurtengo aurrekontuari aurre egin ahal izateko helburuarekin. DYAk anbulantzia berri bat erosi du eta oraindik osorik ordainduta ez dagoenez, guztion kolaborazioa eskatu nahi du, alde zurretik eskerrak emanez.

Fosilak Antzuolan

Jesus Narbaez Amasorrainen "Euskal Herriko fosilak" erakusketa ikusi ahal izango da Antzuolako Udaletxean maiatzaren 7ra arte.



1992. urtean 101 jaiotako izan ziren Bergaran.

1992an bergararrak gehitu

1993 hasieratik, ordea, inoiz baino hildako gehiago

Udal Erroldaren arabera, Bergaran 15.589 bizilagun ziren (7.811 emakumezko eta 7.778 gizonezko) 1993.eko urtarrilaren leian, aurreko urteko fetxa berean 15.542 bizilagun zeudela. Urtebete horretan 350 alta eta 303 baja eman dira. 101 jaiotako eta 98 hildako egon dira, 173 beste herriren batetik etorri dira eta 201 lagunek alde egin dute, atzeritik 9 etorri dira eta beste 2 lagunek atzerrira alde egin dute.

Aurten, Luisi Dominguez enterradoreak eman dizkigun datuen arabera, oraingoz 61 hildako (Ber-

garan lurperatu direnen kopurua) izan dira. Bere esanetan, "hau ez da batere normala, iaz irailaren 25ean geneukan kopuru bera daramagu apirilean. Eta badiru beste herrietan antzerako zerbaile gertatzen ari dela. Eibarren, adibidez, urtarrilean 42 hildako izan ziren". Bergaran, 1975 urtean izan ziren hildako gehien (122) 1970.etik. Urteko media 105-110 tartean kokatzen da eta Luisik dioenez, "urtarrila, abendua eta abuztuan izaten dira hildako gehien eta irailean, berriz, gutxien".

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

BERGARESA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27
Faxa: 76 04 77 BERGARA

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

PELI NARBAIZA
IBARZABAL

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57



Jose Angel Mikeo JARDUNeko presidentek elkartearen bilakaera aztertu zuen.

JARDUNeko Batzar Orokorra

Elkarteak bazkide kanpaina bati ekingo dio maiatzean

JARDUN Elkarteak bere bigarren Batzar Orokorra egin zuen joan den asteartean. 1990eko maiatzean sortu ondoren, euskararen erabilpena bultzatzea helburu nagusia duen elkarte honek ia 3 urte hauetan egindako lanak eta etorkizunerako asmoen berri eman zien bere bazkideei.

Gaur egun 344 bazkide ditu JARDUNek baina Gorka Elorza dinamizatzailearen hitzetan, "bazkide kopuruak ez du guk nahi beste gora egin [hasteran 250 ziren] eta horregatik maiatzetik aurrera

bazkide kanpaina beti ekingo dugu". Zentzu horretan, JARDUNek bideo bat kaleratu, kamisetak eta txapak salgai jarri eta herriko jaientan txozna bat jartzeko asmoa du.

Asteartean jakinarazi zenez, Edurne Mendibil, Miriam Perez, Jaime Garcia eta Iñaki Legazpia izango dira zuzendaritzan berriak eta organigrama berriaren arabere zapi ataletan lan egin nahi da: Diruzaintza, Emakumeak, Gazteria, Kanpo Harremanak, Komunikabideak, Kultura, Komunikabideak eta Merkataritza.

IDOLAZen

Bertso-papera lehiaketa

Antzuolako Idolaz Elkartearen II. Bertso-paperean lehiaketan honako hauek izan dira sarituak: 11 urtera arteko kategorian Odei Letek jaso du lehen saria eta Odei Arangurenak bigarrena; 12-14 urte bitartean Jone Lete eta Mikel Urzelai; 15etik 18ra Nerea Arregi eta Lide Gabilondok irabazi dute lehen saria eta Kristina Pavok bigarrena eta azkenik, 18 urtetik gorakoan artean, J.M. Aristegi "Akino" eta Kruz Garate jaso dute lehen eta 2. saria.

Herri Urratsera autobusak

Datorren igandean, maiatzak 9, Senperen ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusak antolatu dituzte Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Aranzadi Ikastolak. Interesatuak bertan eman dezakete izena osteguna baino lehen. Antolatzaileek ahal bada autobusez joateko gomendatzen dute, autoentzako aparkaleku arazoak ebitatzeko.

FARTUÑO

SAN JUAN BERGARARA

☎ 76 35 51

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARARA

INSTALAZIOAK:

Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04

LAKOTA O.E.

BURDINAKI DENDA
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA

Amillaga, 1
3. pabiloia
BERGARARA

Tfnoa eta Faxa:
76 08 32

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARARA

Txontxongiloen II. Nazioarteko Mostra

Bernardo Atxaga eta Juan Martin Elexpuru aurkezpen ekitaldian

Atzo eman zitzaion hasiera Nagusientzako Txontxongiloen II. Nazioarteko Mostrari. Kultur Etxean burututako hasiera ekitaldian, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Juan Martin Elexpuru eta Bernardo Atxaga izan ziren. Gaur, bihar eta etzi, Estatu eta atzeritik etorritako bederatzi taldek saio bana eskeiniko dute. Altza dadila teloa!!

Bigarren edizio honek 3 milioi pta. inguruko aurrekontua du.

Iñaki Mata Taun-Tauneko kidearen hitzetan, "aurreko edizioarekin konparatuz, Hugo eta Ines eta Gus taldeak kenduta, gainontzeko taldeak [8] berriak dira. Selektzio berezia egin dugu eta, jendearen erantzuna jakin ez daiteken arren, geuk guztia jarri dugu geure alde-tik. Gure ustez aurreko edizioa baino Mostra txukunagoa gertatu dugu eta publizitate aldetik egin-dako esfortzua ere askoz ere na-bariagoa da".

Estatu mailan antolatzen den helduentzako txontxongiloen na-zioarteko jaialdi bakarra izan dai-teke Bergarakoa: "borrela da, Ma-drilen helduentzako jaialdi bat antolatzen da baina ez du aldiz-kotasun finkorik".

Txontxongiloen gaur egungo egoera aztertzerakoan, Iñakiren ustez, "jendeak gero eta gehiago onartzen ditu helduentzako txon-txongiloak. Zailtasunak murriz-tuaz doaz zentzu horretan eta ba-dakigu oraindik ere lan asko egin beharra daukagula. Hala ere, gure asmoa, epe luzera, publiko fijo bat izatea litzateke eta horretarako bi urtetik behin honelako mostra bat egitea primeran dator".

Taun-Taunek ez du mostrain parte hartuko: "ez, jendeak ezagu-tzen gaitu eta gainera ez daukagu ezer berririk aurkezteko. Gainera, hobe da, kanpoko gauzak ikusteko aukera aprobetxatzea, beste es-pektakulu batzuekin gozatzea".

Horra hor, beraz, Taun-Taunek astebukaerarako egiten diguten proposamena...

EGITARAUA

OSTIRALA 30

• GUS MARIONETAS
"Ordaindugabeko eguna"
Zabalotegiko aretoan
20.00etan

• MARKELIÑE
"Armagedón"

San Martin Plazan 22.00etan

• GABRIEL Y CASTILLA
"Títeres para niños grandes y grandes niños"

Pol-Pol tabernan 24.00etan

LARUNBATA 1

• EDU BORJA
"Soledades"

Zabalotegiko aretoan
20.00etan

• LIBELULA

"Buscando a don Cristobal"

San Martin Plazan 13.00etan

Pol-Pol tabernan 19.00etan

• LA GOTERA DE LA AZOTEA

"Milagros la del pozo o el pozo de los milagros"

UNEDeko aretoan 24.00etan

(SAIOA HASI AURRETIK
KUKUMA HANKAPALU
TALDEAREKIN KALEJIRA)

IGANDEA 2

• HUGO E INES

"Las aventuras de Ginocchio"

Zabalotegiko aretoan
20.00etan

• GOLOKA

"Arabiar kalejira"

San Martin Plazan 13.00etan

• PAPAROTE

"Bilin-balan"

UNEDeko aretoan 23.00etan

(SAIOA HASI AURRETIK
KUKUMA HANKAPALU
TALDEAREKIN KALEJIRA)

• LA DUDA


Amaiera ekitaldia alaitzeko,
LA DUDA rock taldeak kontzertua
eskiniko du.

Pol-Pol tabernan 21.00etan



Nartxi Azkargorta, Pili Garzia, Karmele Perez eta Iñaki Mata Taun-Tauneko kideak.

**Bernardo
Atxaga
idazleak
Helduentzako
Txontxongiloen
II. Nazioarteko
Mostraren
inaugurazio
ekitaldian parte
hartu zuen Juan
Martin
Elexpurrekin
batera. Euskal
idazle
famatuena
izateaz gain,
txontxongilozale
amorratua dugu
Atxaga.**



BERNARDO ATXAGA: "Badaukat aspaldiko proiektu bat Taun-Taunekoentzat"

- Zelan ba Bergaran, Bernardo?

- Bueno, Bergararekin badut nik harremana. Alde batean hemengo unibertsitate hori dala eta.. batzutan etorri naiz hizketara, beste batzuetan institutueta... eta azkenaldian Taun-Taun taldearekin harremana badut eta gaur, hain zuzen ere, beraiegatik nago hemen.

- Zelakoa da harreman hori?

- Ba beharbada ez nahi bezain haundia ze neri betidanik gustatu izan zait txontxongiloen mundua, ez umeentzako txontxongiloena, baizik eta nagusientzako txontxongiloak. Diferentzia izugarria dago, haur literatura eta nagusien literaturaren artekoa bezala. Nagusien literatura edo nagusien txontxongiloak mundua bezain zabalak dira, gai guztiak kabitzen

dira. Beti nahi izan dut zerbait idaztea txontxongiloentzat eta nagusientzat baina oraindik ez dut egin.

- Taun-Taunekoekin proiekturik?

- Badut ideia bat, bai. Beraiek ez dakite baina nik badut testu bat "Jostailuak" izenekoa. Testua oso dramatikoa da baina oraindik ez dut bukatu, ez daukat betarik, etorriko da etortzekoa baldin bada...

- Argumentua zeri buruzkoa da?

- Aitorpen batzuk dira Euskal Herriko azken historiari buruz, protagonistek beren bizitza kontatzen dute eta bitartean jostailuak dira beren entzuleak eta berak dira korua egiten dutenak, entzun egiten dute pertsonaiek esaten dutena

eta gero erantzun egiten dute edo kantatu. Aspaldiko kontua da hori baina... *Ars longa, vita brevis* (Lana luzea da eta bizitza laburra).

- Hortik aparte zein proiektu duzu eskuartean?

- Kanpora joan behar dut idaztera baina ez egunkarian esaten zuten bezala [Estatu Batuetara joango zela argitaratu zen orain gutxi hainbat egunkaritan]. Oso leku bakarti batera idaztera noa, Hegoaldera. Bazter batean sartu eta idatzi, hurrengo nobela bukatu.

- Jaialdia jarraitzeko asmorik bai?

- Ezin dut, astelehenan noa kanpora eta mila gauza egin behar ditut aurretik. Nere mezua da ez daukat astirik, ez daukat betarik. Beti da denbora, denbora...

Frontoi berria Tokiederren

Mariaren Lagundiak utzitako terrenoetan, Gabonetarako prest

Urte bukaerarako, Tokiederren egiten ari diren etxe berriak bukatzen direnerako, frontoi berri bat izango dugu Bergaran.


Mariaren Lagundia Ikastetxeak utzitako terrenoetan eraikiko da eta ikastorduetan Mariaren Lagundiko ikasleek erabiliko duten arren, ikastorduetatik kanpo herriko edozeinentzat libre izango da. Beraz, pelotaleku publikoa izango da.

Frontoia, Tokiederreko etxe berriak bezala, "Construcciones Mauricio Arregi S.A." enpresa eraikitzen ari da. Bestalde, Mariaren Lagundiko patioan beste zenbait obra ere egiten ari da: saskibaloia, eskubaloia, futbitoia edota tenisa praktikatzeko kantzak.

Frontoia 24 metroko luzera 9ko zabalera eta 6 metroko altuera izango du. 8 bat kuadro izango ditu guztira eta Mariaren Lagundiaren kanposantu zaharraren horma aprobetxatuko da atzeko pareta modura. Bertara Mintegi kaletik, trafikorako zabaltzen ari den kaletik, sartzeko ate txiki bat egingo da, baina Mariaren Lagundiko ikasleek beste ate bat izango dute ikastetxeko patiotik sartu ahal izateko. Frontoiaren eskumaldean (Tokiede-



Frontoi berria Mintegi kalera ematen duen Mariaren Lagundiko patioaren horma aprobetxatuz eraikitzen ari dira Tokiederren. Horma berria eraiki da, baina lehenagoko hormaren zati bat aprobetxatzen da (frontoiko atzeko pareta izango dena). Zati horretan orain dela 100 bat urte Agirreko San Martinen omenez Gipuzkoako Diputazioak jarri zuen harmarria agertzen da eta interes historiko-artistikoa kontutan hartuz dagoenetan utzi da, zertxobait berriztuta.



reruntz) gradatxo batzuk eraikiko dira eta guztia hesi batez itxiko da.

Esan dezagun, Tokiederren eraikitzen ari diren etxe berrien ondoan dagoen Movilla Sendiaren frontoi zaharra botatzeko asmoa azaldu duela Udalak, hortik 30 metro-tara frontoi berria eraikiko dela eta frontoi zaharra gune txukun horretan lagatzea interesik ez duela kontutan izanda.

26 milioiko obra

Esan bezala, pelotalekuaz gain, beste zenbait obra ere egiten ari dira Mariaren Lagundian. Pation 120 x 34 metroko lursaila txukunduko da. Lehen hortuak eta kirola egiteko kantzak zirenak,

itxuraz dotoretuko dira erabat. 26 milioi inguru gastatuko dira saskibalo, eskubalo, futbito eta tenis kantzak eta atletismo pista bat egiteko. Horrez gain, ikastetxeko haurtzaindegiaren patio inguru ere txukundu egingo da umeentzako jolas lekuak jarritz. Bestalde, Tokieder aldetik patiora sartzeko suhiltzaileentzako ate haundi bat egingo da.

Barrukaldeko obra guzti hauek maiatz amaierarako bukatuta egotea espero da, ekainean ospatzen den ikastetxeko gurasoen jai egunean inauguratu ahal izateko.

Gimnasio berria

Mariaren Lagundiko zuzendaritzaren asmoa

patioaz gain gimnasioa ere berritzea da. Horrela, bada, teilatua, zorua eta bigak konpontzeko proiektua oso aurreratuta dago. Obra hauek irailerako ez bada, ahalik eta aguruen bukatu nahi dira, beti ere datorren ikasturtean erabili ahal izateko.

Bestalde, Mariaren Lagundiko edifizio zaharra berritzeko asmoa ere badago. Baina obrei aurre egiteko, edifizio berria saltzea da ikastetxeko zuzendaritzaren nahia. Orain dela gutxi edifizio horretan Ertzaintzaren komisaldegia berria jarriko zela irakurri izan da egunkari batean, baina hori gezurtatu egin dio BERRIGARARI Begoña Zubizarreta Mariaren Lagundiko zuzendariak.

Honekin lotuta, esan dezagun, UNEDekoak klaseak emateko beharrezkoak zaizkien gela berrien bila dabilzala eta Mariaren Lagundiko edifizio berria gustora asko hartuko luketela oso entzuna dela. Dena dela, UNEDeko patronatoa osatzen duten Bergarako Udala, Gipuzkoako Diputazioa, Kutxa eta Kaja Laboralak dute azken hitza. Gai honen inguruan galdetzean zera erantzun dio BERRIGARARI Begoña Zubizarretak: *"egia da UNEDek larunbatero erabiltzen dituela gure ikastetxeko gelak, Seminarioa txiki geratu zaizkela. Gu prest egongo ginateke akordio batetara heltzeko gure asmoa edifizio berria saltzea da eta"*.

ALDA ITZAZU ZURE UKIPEN LENTEAK ONENENGATIK

14.500 pzta.tan
zure lenteen
ordez
BAUSCH & LOMB
lente bigunak
jarriko
dizkizugu.



Ezagutzen
al dituzu
erabili eta botatzeko
ukipen lenteak?
PROBA ITZAZU
Pare bat
DOAN
jarriko dizugu.

Seequence®

Opticos Asociadosen eskaintza da.



1993ko MAIATZAREN 30a arte baliogarria.

P. Manso
Optika

Irizar pasealekua, 2
BERGARA

TXUKUN

Zubietako 10 lagunek sortua

Txukun elkarte sortzeko, Zubieta kaleko hamar bat lagun elkartu ziren hasiera batean. Hamar hauen lagun batzuk bateratu ziren geroztik, 33 izatera iritsi arte. Hemendik aurrera sortuzen elkarte.

Txukun elkarte bazkide guztien adina 25 eta 40 urte tartean dago. Beraz, oso elkarte gaztea dugu. Txukun elkarte dauden 33 bazkide hauen ustetan, diren bazkide zenbakia egokia da, eta ez dute kopurua gehitzeko asmorik, oraingoz behintzat.

Txukun elkarte bazkide diren Jose, Xar-be, Bitia eta Robertok azaldu digutenez, elkarte honek urtean 1.200.000 pztako kaja batzen du kontsumoarekin. 25.000 pztastan batazbestekoa. Aipatu digutenez, orain arte kaja poliki-poliki gorantz joan da, jende berria sartzen zihoan heinean, baina hemendik

aurrera mantendu egingo delakoan daude.

Elkarte hau oso berezia da falta kontutan. Orain arte ez da faltarik egon. Horrela jarrai dezatela!

Elkarte hontan 3.000 pztako kuota ordaintzen dute hilean. Elkarte berria denez, nahiz eta lokala erosi ez duten, hainbat gastu izan dute. Gastu hauek ordaindu ondoren kuota ere aldatu daitekeela azaldu digute, beti duden gastuak begiratu.

Mahaiak eta aulkiak aldatzeko gogoarekin ere badabilta. Leku gehiago



Txukuneko lau bazkide elkartearen moha boten inguruan.

aprobetxatu eta jende gehiago sartu ahal izateko ideiarekin egin nahi dute hori.

Txukun elkarte ez dago presidenterik. Juntan lau dira eta hauek erabaten dute guztia.

Erabaki garrantzitsuren bat hartu behar denean bazkide denek artean egiten dute.

Elkarte hontan sei hilabetetan merkataluntzi batean sukaldari lanetan aritzen den Kastor izeneko bazkide bat dago. Hemen beste sei hilabete igarotzen ditu, eta etortzen denean, Txukuneko kongeladorea gertaturiko platertxoak bete uzten du. Kastorrek gain gehienek ere ba omen dute sukaldako abilitaterik. Batzuk pulpoa gertatzen beste batzuk menestra...

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1991ko apirilaren 15ean.
BAZKIDEAK: 33.
HELBIDEA: Bolu, 16.
PRESIDENTEA: Ez dago presidenterik.
ELKARTEAREN EGUNA: Apirilak 15.
URTEKO KUOTA: 36.000 pzt.

Siaska

Dena zure haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

ERRETILAK
ETA
ERAIKUNTZARAKO
EGUR
JARTZEA

☎ 76 59 54
BERGARA



ETXETXO-OLAZABAL

Aurtengo Pazko jaietan, txekorketa bat izango da nobedade nagusienetakoa. Txekorketa Zezen Zaleak taldeak antolatuko du, eta Udalak jaietarako beheko estazio parean jarriko den plaza portatila utziko die. Baina dagoeneko entzun dira ahotsak ere antolatu ekitaldi horren aurkako batzorde bat, Zezenenganako Errespetuaren aldeko Batzordea hain zuzen.

Berrigarak hiru taldeengana jo du, beraien asmoak eta zergatiak ezagutzeko. Hurrengo orrietan Luis Abajo zinegotziarekin eta Batzordeko kideekin izandako elkarrizketa irakurtzeko aukera izango duzue. Zezen Zaleak taldearen elkarrizketa ere eman nahi izan dugu, baina beraiek esan digutenez, oraindik ez dute publikoki azaldu baina laister emango dituzte, txekorketaren eta taldearen xehetasunak prentsaurreko batean.



Sokamuturra izan beharrean, entzierroa, enbolatuak eta txekoerketa bat izango dira aurtengo jaietan.

Pazko jaietako txekorketaren inguruan

LUIS ABAJO JAI BATZORDEBURUA

- Aspaldiko partez aurtengo jaietan txekorketak. Zergatik?

- Sokamuturra urtero izan da. Aurten Orozkotik proposamena izan genuen, San Martin plaza txiki gelditzen baita, zezen plaza portatila jartzeko. Guk proposamena aztertu eta gero pentsatu ge-

nuen plaza alokatzea eta, bertan, goizean egingo ziren entzierroak eta arratsaldean enbolatuak antolatzea. Baina gero, plaza alokatu ondoren, "Zezen zaleak" taldekoek proposamen bat egin ziguten plazan txekorketa bat antolatzeko, orduan guk inungo intentzio txar barik beraien proposamena onartzea erabaki genuen.

- Plaza alokatzeak, zenbat balio du?

- Udalak, bakarrik, zezen plazaren alokairua, goizeko entzierroa eta arratsaldeko enbolatuak ordainduko ditu. Guztira Bergarako Udalari 800 mila pzta kostatu zaio, txekorketaren gastuak "Zezen Zaleen" kontu izango dira.

- Ze erizpide izan dituzue kontutan txe-

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80
76 06 37

AGENTZIA: J. ELKORO
Ibargaral 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH
VITA
CAUDAL



UNIBER
HISPANA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK

korketaren proiektua onartzeko?

- Uste dut Bergaran zezen zaleak badaudela, gero proiektua aurkeztu ondoren aurkako ahotsak izan dira, baina, txekorketak onartzean gure asmoa jai giroa sortzea zen eta ez genuen espero horrelako saltsarik sortuko zenik.

- Bergarako talde ekologisten eritzia kontuan hartu duzue txekorketak antolatze-ko orduan?


- Ez, baina aurrerantzean horrelako gairen bat tratatu behar baldin badugu, eurekin kontaktuan jarriko gara.

- Zergatik ez duzue ekologistekin aurretik kontaktatu?

- Guk ez genuen espero horrelako arazorik izatea, baina ekologismoan hor dago ingurugiroa ere. Hemen ekologisten batzar bat izan da eta ondoren plazan pintada batzuk agertu dira, nik ez dut esaten beraiek izan direnik, baina argi dago badagoela jende bat gauzak nahastu nahi dituena.

- Zer baldintza jarri diezue "zezen zaleak" taldeari txekorketa antolatze-ko orduan?

- Eurok etorri ziren plaza erabiltzeko eskatzera eta proiektu bat aurkeztu ziguten eta guk eskakizun hori onartu egin dugu. Hor daude rock jaialdiak, horien kontzertua egiten denean ondoan bizi diren etxetakoek zarata dela eta eragozpenak sortzen diz-



Luis Abajoren esanetan, Udalak ez zuen espero gai honengatik ekologistekin arazoak sortuko zirenik.

kie, baina eskakizun bat izan dugu eta onartu beharra dago.

- Zezenzalea zara?

- Ni nire bizitzan ez naiz inoiz zezenketa batean egon eta, gainera, ez telebistaz ere ez dut jarraitzen. Nik ez daukat inongo intentzio pertsonalik zezenketa hori antolatze-ko.

- Txekorketan diru galerarik balego, Uda-

lak ordainduko lituzke?

- Udalak ez du ezer ordaindu beharko, txekorketaren antolatzaileek euren autofinantziazioa lortu beharko dute.

- Lehen, jaietako programaren barruan, usakume tiraketa izaten zen, baina ekologisten presioak zirela eta, orain plater tiraketa egiten da bakarrik,

"Ez naiz inoiz zezenketa batean egon". LUIS ABAJO.

txekorketaren kasua ez al da berdina?

- Nik ez dakit egiten ziren edo ez, eta gainera uste dut konparaketak ez direla onak. Denok ditugu gustu ezberdinak norbaiti ez zaio rocka gustatuko edo txoznak ere ez zaizkio gustatuko eta jaietako programaren barruan daude.

- Txoznak jartzeko baldintza batzuk jarri dituzue eta txekorketak egiteko ze baldintza eskatu dituzue?

- Guk ez dakigu ezer eurek hartu zuten antolakuntzaren ardura eta aurrera doa. Hori bai, lege aldetik guztia betetzen dute, "Ikuskizun eta jokoen legea" bete dute eta hor ez dago arazorik.

- Ekologistek idatzi bat bidali dute Udalera informazioa eskatuaz, bilerarik izango al duzue beraiekin?

- Datorren asterako bilera bat antolatze-ko asmoa daukagu, hiru aldeekin: Udala, Zezen Zaleak eta Zezenenganako Errespetuaren Aldeko Batzordekoak. Horrekin espero dugu debate sano bat sortzea, ez dadin gertatu gehiago orain izan diren moduan alkatearen aurkako pintadarik eta antzekorik, nahiz eta nire ustez pintada horiek ekologisten gauza ez izan.

ZEZENEN ERRESPECTURAKO BATZORDEA

- Zergatik sortu du-


Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA



Elsa Manso Zezenen Aldeko Batzordeko partaidea.

zue Zezenenganako Errespetuaren Aldeko Batzordea?

- Guk gutxien espero genuena zen Udalak txekorketak antolatzea, partikular batek antolatzea ongi, baina Udalak aurrerabidea ematea hori ez dugu uste etikoa denik. Gure ustez kulturalki atzerakoia da, zeren animaliei tratu txarrak eman eta gainera hori jai giroz hornitzea ez dugu uste

gaur egun onartu daitekeenik.

- Baina, badirudi, txekorketek zalego eta ohitura handia dutela...

- Ohitura hori ez dakigu ze puntutaraino dagoen Bergaran, guk ez daukagu ezer ohituraren aurka eta gure ustez ohiturak egokiak ez direnean aldatu egin behar dira.

- Zer da sortu berri duzuen batzorde hori?

- Talde ekologistek dei

bat egin zuten, zeren uste zuten jende asko zezenen alde egongo zela, eta pasa den ostiralean egin genuen bileran sortu zen komisioa. Astero bilduko gara eta konponbide baten bila joango gara. Baina ekintzak antolatu baino lehen informazioa eskatu diogu udalari eta ondoren erabakiko dugu zer egin. Gu, gainera, ez gaude inoren aurka, guk nahi dugun gauza bakarra da jendea zezenen esku-bidean alde jartzea inoren aurka jo gabe.

- Udalarekin izan al duzue kontakturik?

- Talde ekologistek informazioa eskatuz idatzi bat bidali genuen, apirilak 15ean Udalera eta komisioko bilera egin genuenean, 24ean, oraindik ez geneukan erantzunik eta uste dut Udalak ekologistak eta sentzibilizatuta dagoen jendea aintzakotzat hartu beharko lukeela. Gainera ulertzen dugu Jaietako batzordeak zerbait berria antolatu nahi izatea jaietarako, baina itsu-itsu sartzea proiektuan ere, ez dakit. Baina komisiorekin aldetik ekintza zibilizatuena bultzatu nahi ditugu, guk pertsonalki ez daukagu ezer inoren aurka.

- Zeintzu dira ekintza zibilizatu horiek?

- Informazioa eskatu, Udalarekin elkarrizketak burutu, sentzibilizazio kanpaina bat etab., ekintza horiek aurrera ez badute irtetzen ba firmabilketak, prentsaurreko-

ak, ea... egingo ditugu, baina beti ere inorekin sartu gabe eta jendea errespetatuz.

- Zeri buruz hitz egingo duzue Udalarekin?

- Guk esan nahi diogu, orain parlamento Europarra ere zezenketen aurka azaldu denean, Udalak ere bultzatu beharko lituzkela animalien aldeko ekintzak eta ez, oraingo moduan, aurka-koak.

- Zezenketen aurka-ko pintada batzuk ere agertu dira plazan, zuek horren aurrean zer esaterik ba al daukazu-e?

- Gu komisio moduan ez gaude ados ekintza horiekin, batzarra egin genuenean argi geratu zen gure estrategia zein izango zen eta guk ez dugu nahi inorkaltetua izan dadin.

- Udalak, datorren asterako Zezen Zaleak, komisioa eta Udala berrabiltzea proposatu du, zer uste duzue horri buruz?

- "Zezen Zaleak" taldearekin ez dugu zer eztabaidaturik, guk nahi dugun gauza bakarra da Udalarekin elkarrizketa bat izatea. "Zezen Zaleak" taldearen postura ongi ikusten dugu, baina Udalaren papera, gure ustez, animalien defentsan eta gauza bakarra hitz egiteko Udalarekin daukagu, Udalak eman bait ditu permisoa eta ez dugu "Zezen Zaleak" taldekoekin arazorik izan nahi.

"Zezenzaleen aurka ez daukagu ezer". BATZORDEA.

BERGARA BOLTSAK

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetariko konfekzio industrialak

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



APPENIZ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

**Txontxongiloak gustatzen al
zaizkizu?**



Santi Fernandez
27 urte, langilea

Txikitatik gustatu izan zaizkit bai, eta Taun-Taunekoen lana ere jarraitu izan dut.



Mireia Gallastegi
23 urte, ikaslea

Ez dut gehiegi ikusten. Beharbada interesantia izango da... baina ez naiz sekula joaten.



Lourdes Aierbe
35 urte, langilea

Lehen ez nituen ezagutzen baina Taun-Taun sortu zenetik ahal badut behintzat joaten naiz. Oso ondo daude.



Iñigo Larrañaga
22 urte, langilea

Mordo bat eta ikusten da jendeak primeran pasatzen duela, zezenekin baino gustorago.

PENTEKOSTE JAIK SALOU_n

HOTELAK:

- SAN DIEGO **
- LAS VEGAS ***
- MEDITERRANEO ***
- AUGUSTUS PLAYA ***
- EUROPA PARK ***
- CALIFORNIA GARDENS ***
- FONT DEL MAR APTH ***
- OLIMPIUS ***
- BLAUMAR APTH ***

PREZIOAK:

- 12.960 pzta.
- 13.900 pzta.
- 14.120 pzta.
- 14.120 pzta.
- 14.120 pzta.
- 14.360 pzta.
- 14.800 pzta.
- 15.060 pzta.
- 16.320 pzta.

**PREZIO
HAUEK
MAIATZAREN
28tik
EKAINAREN
1era arte
(AUTOBUSA
BARNE)**



EROSKI
B I D A I A K

MAIATZAREN 3tik AURRERA ARRATSALDEZ
ELEKTRAGAILUEN DENDAN IZANGO GAITUZUE



**Ebanjelioa
mintzo**

Hasieran harrিতa, gero mesfidati eta azkenean algaraka bukatu nuen.

Duina eta ulergarria ezezik beharrezkoa iruditzen zait eliza katolikoak modernizatu nahi izatea. Baina horretatik 903 estiloko kanpaina bat bultzatzera badago aldea..., nahiz eta zerbitzua ohizko kostotetan sartu.


Pagolak, Donostiako Elizbarrutiko Bikarioak azpimarratzen du hurrengo igandeko ebanjelioaren laburpena grabatuta emateko telefonikako zerbitzu hori fededun eta fedegabekoentzat dela. Baina, bene-benetan, ez dut uste inork erabiliko duenik, lehenengoek igandean entzungo dutelako eta besteek interesik ez dutelako.

Modernizatzeakotan, ez al duzue hobe gauzak behar den moduan egitea eta zuen doktrina eguneratzea. Hobe litzateke, adibidez, hain burugogorra ez izatea eta HIESaren kontra egiteko preserbagailua erabiltzea debekatu eta halako lelokoriak ez egitea.

Pagolak adierazi zuen bizitzari modu gizakoiagoan aurre egiteko argi edo estimuloren bat behar dutenei lagundu nahi ziela zerbitzu honen bidez.

Ez dut uste hainbesteko demagogiarekin ezer lortuko duzuenik, telefonotik zintzilik egon gabe, murgildu zaitezte ekintzetan, emaitza hobeak emango ditu eta.

Marta Moral



**Bakea
dela eta**

Elkarrik joan zen egunean Bergaran egindako aurkezpenak, zenbait burutapen idaztera bultzatu nau.

Esan daiteke, akordatzen garenetik, istiluan bizi izan garela eta bake falta honek hainbat sufrimendu eta malko jasan eta isuriarazi dizkigula. Orain arte beti bestea hartu izan dugu erruduntzat, oso iaioak izan gara "zu pekariaren aitortza" egiterakoan, eta begien aurrean dauzkagu lortu ditugun ondorioak. Egunak joan, egunak etorri, gogorkeria uneak, tartean zenbait barealdirekin bizi izan beharra. Norabide gabeko egoera honetatik irten nahi badugu, ezinbestekoa iruditzen zait gure pausoak bestelakoak izatea. Beti errudunaren bila ibili ordez, saia gaitzen, bata bestearen aurka dauden aldean aurrean, gure bitartekaritza eskaintzen, mahai baten inguruan jarri, eta elkarrizketaren bidez akordio batetara iritsi daitezten. Ze errez esaten diren... ! Baina, gorrotoaren hatzaparretan ito zorian gaudenok, nola izan bitartekari?"

Asisko Frantziskoren otoitza datorkit burura..., eta bere jarrerak ispilu. Hark ere lortu zuen Turkoen eta Kristauen Erresumen artean elkarrizketa gauzatzea... Eta orduan ere ez zen izango erreza! Era horretako jarrerak beti egon dira eta hortik abiatu direnek emaitza baikorrak lortu dituzte. Bide hau da **Elkarrik** proposatzen duena bakea lortzeko. Zu ere iritzi berekoa bazara, eta zure laguntza eskaintzeko prest egongo bazina, ez zalantzarik izan eta dei egizu **Elkarrira** (652942 Tfnoa.) edo hurbildu Bergarako **Elkarriko** taldera.

Jabier Loidi

EDERRAGO EGINGO ZAITUZTEN SARIAK

LILURA edertze-institutuan sari asko dituzu zain. Bertan jasotzen duzun zerbitzu bakoitzeko, martxoan eta maiztaean zozketatuko diren 63 sari bikainetako bat lortzeko aukera emango dizun txartel bat eskuratuko dizute.

BERROGEITAMAR LOTE

HYGEA, higiene pertsonalerako produktuak edo, SORTEGE, ilearen edertasunerako produktuak.



Lote bakoitza:
12.000 pzta.

HAMABOST "EDERTZE TXEKE"

Edertze Integralezko Zerbitzu-Zentro batean erabateko tratamendua jasotzeko aukera emango dizuten "edertze txekak".



Txeke bakoitza:
30.000 pzta.

ASTEBETEKO "OSASUN ETA EDERTASUN" OPORRAK

Bi lagunentzako egonaldia, Italian, Gardako lakuaren ondoan, PORTOFINO'S BEAUTY FARMen instalazioetan, gastu guztiak ordainduta.



Sariaren balioa:
700.000 pzta.


NOTARIO ETA GUZTIKO BI ZOZKETA, 1993ko MARTXOAREN 15ean ETA MAIATZAREN 10ean

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

Mari Carmen

ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi

☎ 76 15 90 / 76 40 73

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

JOSE
LUIS
eta
MIKEL

Besaulki eta
tresiloen
konponketa
eta
tapizaketa.
Etxebarruen
dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



□ Bertso afaria Uberan

Berrogei bat lagun bildu ziren pasa den ostiralean **JARDUN Elkarteak** Uberako Jaolatzak Elkartearen antolatutako bertso afarian. Sukaldariek gain, **Millan Telleria** eta **Jose Luis Gorrotategi** bertsolariak fin aritu ziren, Ainhoa Agirreazaldegia gazteak berriro ere bere maila erakutsi zuelarik. Esan bezala, eta honakoetan gertatu ohi den bezala, majo afaldu, umorea nagusi eta barre ugari.



□ Bitorianatxo, Bitorianatxo...

Asteartean Aranzadi Ikastolako 5. mailako 25 bat gaztetxo, herriko kaleetan zehar burututako kalejira "zaratatsu"aren ondoren, Kultur Etxera hurbildu ziren Pentekoste Jaietan **Bitorianatxo**ren jeitsiera aldarrikatuz. **Rufina Olasagasti** Kultur Jestoreari Bitorianatxo Aranzadi Ikastolako atzerkaldetik Ibargarai kaleko etxeren batetara jeisteko proposamena egin zioten eta astearteko Jai Batzordean Udalak Bitorianatxoaren jeitsiera Plazan bertan egitea erabaki zuen, Bitorianatxok duen arrakasta ikusita.



□ **JARDUN Productions presents...**

Nerea Ibabe, Amaia Labaien, Elsa Manso, Izaskun Pardina, Maite Unanue, Nerea Zubimendi eta Asier Altuna bideogileek osatutako taldea **JARDUN Elkartearentzat** bideo bat garbatzen ari da egunotan herriko hainbat lekutan. Bideoak 10-15 minutuko iraupena izango du, JARDUN ezagutarazteko eta herritarrei hurbildu nahian egiten ari da eta tabernetan ikusi ahal izango da maiatzaren erdialderako.



□ **Argiñanoren bidetik**

Helduentzako Heziketa Iraunkorreko (EPA) zentruak azken astetan antolatu dituen **sukaldaritza ikastaroak** asteartean bukatu ziren **Pertxa Elkarte**an. Bi txanda ezberdinetan, 39 lagun ibili dira, **Judit Agirre** eta **Jose Mari Soba** *chefen* eskutik 16 orduko klaseak hartu dituztelarik. HHko arduradunek **Pertxa Elkartearen** musutrukeko laguntza eskertu dute.

Zertan dibardute ba?

BENITO CANTERO



Pol-Pol Argazki Taldeko 31 urteko kide hau Legazpin antolatutako Estatu mailako Mendiko Argazkien Lehiaketan 3. postuan sailkatu da. Bergararrak larunbatean jasoko du saria.

BINGEN DE PEDRO



32 urteko margolari bergarar honek bere lanak ikusgai izango ditu Iruñeako Aurrezki Kutxa Munizipaleko aretoan (Avenida del Ejército) igandera arte, hilak 2, 12.30etatik 2etara egongo dela zabalik jaiegunetan.

ARIZNOA
Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilazkoak

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

BELENGUA
Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

Eibarko orkestia

Izugarrizko zaratia armau zan Eibarko kalietan. Ez aurrera, ez atzera egiñ ezinda, an zegoazten automobil pill bat Untzaga inguruan. Aspertuta txoferrak ainbeste denporan geldi egoten, asi ziran klaxonak joten. An armau zan turutiak etzeukan akaberarik. Orretan, urten dau Isastiko denda batetik emakume batek eta diño eskuak be-larrira eruanaz:

- Zer da au!
- Ori zer dan? -diñotsa txofer batek- ori Eibarko orkestia da.

Inoxidabilia

Madrillen bizi zan plaentxiar bat etorri zan beñ batian Eibarko fabrika batera eta bai "pedido" on bat egin be. Oso lagun egin zan gure eibartarrekin.

Andik bost bat urtera etorri da barriz, eta bai arritxu be eibartarren gaztetasuna ikusitxa!. Esatetsa:

- I, baiña, ointxe bost urte modu-an ago. Zelan arreglatzen aiz olan konserbatzeko?

Eibartarrak:

- Itxura danez, ez bakarrik nere produktuak, neu be inoxidabilia nok.

Pedro Zelaia

UNAMUNO PUNTA-PUNTAN CASTILLAN

Unamuno, Madrileko talde zurigorri joan zen bergararra, Castillako aurtengo "Kirolari onen" izendatu dute.

Momentu honetan ez dugu berri gehiagorik ematerik txikiteo-giroetan jaso da eta. Dakiguna da orain Almerian dabilela, hango taldea utzita.
1968-IV-26. La Voz de España. Bikuña.



BI BERGARARREK EKARRI DUTE IPARRAGIRREREN ZILARREZKO KATEA MONTEVIDEOTIK

Erlikia eder bat, Iparragirre bardoaren zilarrezko kate haundi bat eman berri diote Gernikako Juntetxeari Montevideoko Centro Euskaro-Españoleko ordezkari den Jose Maria Larrañagak eta Gipuzkoako Manterola Eusko Ikaskuntzen taldeko kide diren Ignacio Ruiz de la Prada eta Juan Etxaniz jaunek guztiak bergararrak.

Gernikako alkateak eta Juntetxeko artxibozainak jaso dituzte katea eta pergaminoa. 1968-IV-26. La Voz de España. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerotekatik bildutako notiziak

MARKIEGI Automobilak



Leizeaga, 1
(San Lorentzo Pol. Ind.)
☎ 76 35 09

- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

ADI ORAIN:


I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)



Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE

JOSU MUJICA

Fernando VII.a Erregeak zezen-festak ikusteko egin erazi zuen begiratokia San Martin Plazan dagoen Izagirre Etxeko begiratokia izan zen, dagoen tokia beti izan ei da eta haize korriente lekua. Horixe zen aurreko Galde Debaldeko erantzun zuzena.

JOSU MUJICA izan da aste honetako irabazlea.

Berarentzako, beraz,
ARGAZKIk emandako saria.

ZORIONAK !!

Eta besteok segi asmatzen! Animo!!



HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53


**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



JOSU MUJIKAK jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak
Matxiategi, 4. 76 37 53



Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI aparailuak.
Matxiategi, 3. 76 12 22

Hurrengo Galde Debaldeko saria
HERRAN ETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Bergarako armarrria edo eskudoak zein itxura eduki behar duen argitu nahirik, Udalak agindutako txostenak finkatu ditu, nolabait, armarrria osatzen duten izar, ilargi, giltza, barra eta gainerakoak zeintzu diren. Baina armarrri honek, aspalditxotik, bere inguruan esaldi bat ere eduki du "Muy Noble y Leal Villa"ren garai bateko jarrera azalduz.

Zer diño Bergarako armarrriaren inguruan azaldu ohi den esaldi horrek?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Bergarak 2 Beasainek 1

Bergara K.E.ko pelota sailak 2 eta 1 irabazi zion Beasaingo taldeari joan den ostiralean Bergarako Frontoian jokaturako Herri Arteko Txapelketaren lehen kanporaketan. Infantiletan galdu eta jubentzen eta seniorren kategorietan bergararrak nagusi izan genituen. Larunbatean Setan itzulerako partidua jokatu dira Beasainen.

Eskola kirola


Aranzadi A alebin mutilen eskubaloi taldeak 18 eta 5 irabazi zion Arrasateri larunbatean jokaturako Deba Garaiko Eskola Kirola Txapelketako finalean.

GARIKOITZ LAZKANO

Gipuzkoako duatloi txapelduna

Garikoitz Lazkano 18 urteko bergarar gazteak pasa den igandean Elgoibarren jokaturako Gipuzkoako Duatloi Txapelketa irabazi zuen juniorren kategorian. Euskal Herri osoko duatletek parte hartu zuten Elgoibarren eta Garikoitz bere kategorian bigarrena izan zen helmugan, Gipuzkoako txapela eskuratuz.

Igandeko proban, 7 Km. korrikari, 40 bizikletari eta, amaitzeko, korrikari beste hiru egin behar izan zuten eta Garikoitzekin batera Unai Alberdi, Iosu Alberdi, Aiert Lizarralde eta Eugenio Allés bergararrak aritu ziren. Errekorridoaz gain, eguraldia ere kontra izan zuten partaideek euria protagonista bihurtu zelaririk. Garikoitzek esaten duenez, "ixikitatik ari-



Garikoitz Lazkano igandean Elgoibarren lortutako koparekin.

neketan egin dudan arren, aurten duatloia egiten hasi naiz Bergara Triatloi Taldean [11 lagunez osatutakoal eta ez nuen espero bain laister honelako garaipena lortzea". Asteazkenean, 2 orduko entrenamenduak burutzen ditu eta hemendik denboral-

dia amaitu bitartean izango diren duatloi probatan (Euskadiko Txapelketa tartean) parte hartuko du.

Maiatzean triatloi proba jokatzeko hasiko diren arren, oraindik Garikoitzek ez du probatzeko asmorik, "igerian nabiko kaskar nabil eta".

Laugarrenak Lezaman

Aranzadi Ikastolako alebin futbol taldea 4. postuan sailkatu da Lezaman jokatu berri den txapelketan. 4 partidua jarraian irabazi ondoren, finalerdietan geroago txapeldun izan zen Ondarroako «Jo ta ke» taldearen aurka galdu zuten. Azkenik, Aitor Eraña eta Enrike Zelaiak entrenatutako talde honek, Sestaoko taldearen aurka galdu zuten penalti jaurtiketetan 3. eta 4. postuetarako partiduan. Partidu on batean hiruna berdindu ondoren, penaltien txandan bergararrak (Gipuzkoatik parte hartu duen talde bakarra) punteria gutxiago azaldu zuten.



Garnish


Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



Zubietako pelota kuadrila, 1960.

Pelota klubun Euskadiko Ligan txapeldun izan berri ditugu Muruamendiaraz eta Gutierrez bergarar gazteak. Horren oroitzapenetan orain dela urte mordoxxka bateko pilotari bergararrak dakartzagu Erretratua 1960koa da, herri mailako txapelketa batekoa. Artean ez zen Herriarteko Txapelketarik Hura handik zortzi urtera etorriko zen (aurten 25 urte) eta bergararrek hasiera bikaina eman zioten, txapeldun gertatu baitziren Urretxuri bi eta bat irabaziz.

Argazki honetan Jesus Iñarra eta Juan Gallastegi, herri mailako txapelketa hartako irabazleak ageri zaizkigu beren lagunez inguraturik.

Hara zeintzu ditugun, eskerretik eskumara:

Atzean, tente: Jose Mari Mujika, Jabier Madariaga, Jesus Iñarra, Juan Gallastegi, Markos Gabilondo eta Jesus Aperribai.

Makurtuta: Jose Mari Epelde, Jesus Mari Zabaleta, Dionisio Zubizarreta, Anjel Mardaras, De Pedro "Pana" Jose Maria Ezkurra eta Padilla. Mutikoa Julian Arriaran da.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Jauregi "Altzeta"*

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

JOSEFINA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Urrats azpian. 1.200.000 pza. ☎ 76 57 93.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoltza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52. Eguerdian edo gauean.

Artakalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Pisua alokatzen da Zurraderon. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauez).

Garajea salgai Urrats tamera azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldia, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

Asteburuetan Madrilera joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Esklatzeko botak (44a) eta Snow-Board eskilatzeko tabla salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

DENETARIK

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Kanping denda salgai (haundia). ☎ 76 26 73

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Egunero Bergaratik Zornotzara joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etzeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasako integrala erosiko nuke. Merke bada hobe. ☎ 76 10 04.

Errekuperatutako eta berriztatutako altzariak salgai. ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

Ileapaindegiko altzari eta lan tresna guztiak salgai. la berriak. ☎ 76 25 38 / 76 23 37.

Marketari lana duen sarerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Softwaredun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

LANA

Etzeko lanak egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 44 67 (Leire).

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Esperientziadun neska batek haurrak zaindu edota etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

Hildakoak

Juliana Otxoa Uribetxeberria
apirilak 22, 84 urte
Pedro Martin Mujika Gallastegi
apirilak 24, 87 urte
Nieves Lazkano Iraola
apirilak 25, 98 urte
Esperanza Arostegi Navas
apirilak 27, 83 urte

Jaiotakoak

Maialen Moreno Gonzalez
apirilak 14
Ane Azkarate-Askasua Borobia
apirilak 19
Nerea Blazquez Gutierrez
apirilak 20
Alazne Mateos Arreseigor
apirilak 22

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)




SUKALDERAKO ALTZARIAK



GORLA

ELEKTRAGINTZA



- INDUSTRIARAKO INSTALAKUNTZAK
- ETXEETARAKO INSTALAKUNTZAK
- SEGURITATE ALARMAK
- AUTOMATISMOAK
- MAKINEN BERRIKUNTZAK
- ABIADURA ERREGULATZAILEAK

Mugerza, 3 BERGARA

☎ 76 19 07

